



URTEROKO LANAK

Bixente Barandiaran

Bein da berriro ekin nai diot
nere gogozko lanari
al degun arte eutsi deiogun
geren umore onari
lendabiziko biotz biotzez
milaka esker danari
ogei ta bian apaldutzero
deitu dezutenari.

Urtetan gora igota nago
talentuetan jexita
leno genduan sasoi onari
ezin diogu eutsi ta
lengo moduan ezin degula
jarria nago etxita
egunez asko ibili arren
apari danak utzita.

Amulletako lagun artea
beti daukat gogoan
rato goxoak pasatzen nitun
orko lagunen ondoan
jaten ederda edari onez
barrena betetakoa
nere burua bela jartze zan
abestutzeko moduan.

Elusiorik baldin baneuka
apaltzera joateko
alperrik neri esango zidaten
etxean txintxo egoteko
ikusitzen det ibili oiek
dirala nere kalteko
badakit ondo zuen eskeintza
aurtene ez det beteko.

Barka nazute gelditutze naiz
nere barrango penakin
ondo badakit deitu nazute
ain borondate onakin
asko pozte naiz oroituztea
orko lagunak nerekin
zerbait laguntzen saiatuko naiz
neronek al dedanakin.

Zuek dezuten maitasun ori
buruan daukat sartuta
ikusitzen det lan au eitea
nola nagon beartuta
danak ondo bukatutzeko
gogoz artu bear du ta
liburu on bat egin liteke
guztiok alkar artuta.

Naiagatikan ibiltzen ditut
askotan ainbat komeri
ustegabeko utsegiteak
sari gertatzen zait neri
pensatu arren ezin sortu nik
ain onak eta ugari
geiago ez dago eskatuzerik
al dana egiten dunari.

Sasoi denboran egoten nintzan
lagun arteko pozian
leku askotan ibiltzen giñan
orduan urte luzian
urrutira joanda askotan
gertuan pestik ezian
gazte denboran laguna nonai
errez topatuzten zian.

Errenteriaz itzezin nai det
neurri gabeko afanez
lengo modura segi nai nuke
danai eskerrak emanez
lagun bezela artzen nazute
naiz ezer asko izanez
euskaldun danak lagunak dira
aitatu gabe izenez.

Pozgarria zuek neretzat
egiten dezuten arrera
aintxen gogozko izaten det nik
erri ortako sarrera
al dedan arte zuekin ondo
segi nai det aurrera
al dan guzia laguntzen dunai
ezin da asi txarrera.

Egin al dana zuegatikan
nik ere nai nuke egin
askorik ezin nezake baina
saiatuko naiz alegin
gure arteko anaitasunak
inoiz ez dezan alde egin
eta Oarso errebista ori
urtero indartu dedin.

Nik artu dedan nere lantxoia
emen bukatu det gaurkoz
geiago egin al banezake
naiago nuke ba askoz
berriro ere zuek ikusteak
neri emango dit ba poz
bitarte ontan biltze ez bagera
Madalenak ere ba datoz.